

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Ibarrangeluko Udala****Kirola sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileen deialdia 2024****1. Xedea**

Oinarri hauen helburua honakoa da: Ibarrangelun errolatuta dauden herritarrentzako, kirola egiteko xedez Ibarrangelurekin mugakide diren udalerrietako baten kirol zerbitzu eta instalazioak erabiltzeagatik, dagozkion gastuei aurre egiteko diru-laguntzak nor-gehiagoka sistemaren bidez arautuko dituzten arauak ezarri; betiere, Ibarrangelu egiteko aukerarik ez badago. Diru-laguntza ez da zabalduko aipatutako instalazioetan egiten diren kurtsoetara.

Diru-laguntza orokorra izango da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, Ibarrangelu errolatuta egotearen xedez dagokion gastuaren arabera izango da.

Eskabide-kopuruaren arabera zenbatekoa erabilgarri dagoen eta deialdian adierazi den aurrekontuaren zenbatekoa baino altuagoa izanez gero, amaitutzat emango dira emateko diren dirulaguntzak.

2. Onuradunak

Ibarrangelu udalerriko herritarrak Ibarrangelun errolatuta daudenak, izan ahalko dira onuradun, kirola egiteko xedez Ibarrangelurekin mugakide diren udalerrietako baten kirol zerbitzu eta instalazioak erabiltzen dituztenak.

Deialdi honetan aurkezteko betebeharrak honakoak dira:

- Eskatzaileak eta, dagokionean famili-kideko onuradunek Ibarrangelun enpadronatuta egon behar dira 2024 urte osoan.

Diru-laguntza honen onuradunek ez dute jasotako diru-laguntzaren iragarpenik egin behar izango.

3. Diru-laguntzaren gehieneko zenbateko osoa

Deialdi honetara bideratutako kredituaren zenbatekoa 2.500 eurokoa da, 340.480.01 aurrekontu-partidaren kontura; partida gehitzeko hartu ahal diren erabakiak salbu.

Diru-laguntza horiek eta bestelako erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak bateragarriak dira; betiere, diru-laguntzak arautu dituen ordenantzaren arabera.

4. Eskabideak eta aurkezteko epea

Eskabideak Ibarrangeluko Udaletxean dagoen erregistroan aurkeztu beharko dira.

Eskabideen eredu ofiziala aipatutako erregistroko bulegoetako batean jaso ahalko da.

Eskabideak, zerbitzuan alta eman eta jarraian aurkeztu ahal izango dira.

5. Salbuespenak

Diru-laguntzak arautu dituen ordenantzan ezarritako arrazoiez gain, ezingo dute diru-laguntzarik jaso eskabideak aurkezteko egunean Udal edo foru Ogasunaren zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituen eskatzaileak, edo aurretik emandako diru-laguntzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu ez dituztenak. Ziurtatzeko agiriak aurkezteak ez dakar, besterik gabe, aurkeztutako justifikazioaren onespina.

6. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideak aurkeztean, honako agiri hauek –jatorrizkoak edo kopiak– erantsi beharko dira, behar bezala konpultsatuta, indarrean dagoen araudiari jarraiki:



- a) Kirol-instalazioaren arduradunek emonda, zerbitzu horiek erabiltzeagatik izandako gastuen ordainagiria.

Eskabidea aurkeztekotan, oinarri hauetan eta diru-laguntzak arautu dituen ordenantzan zehaztutako arau guztiak onartzen direla ulertuko da.

7. Diru-laguntzak emateko prozedura

Diru-laguntzak arauotan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaizkie, zehaztuko diren kopuruetan, baldin eta ezarri den aurrekontuaren gehienezko muga gainditzen ez bada.

8. Eskabideak balioztatzeko irizpideak

kirola sustatzeko diru-laguntza eskariak ez dira balioztatuko. Izan ere, arauotan ezarritakoa betetzen den egiaztatuko da diru-laguntza eskuratu ahal izateko, aurrekontuaren mugen barruan.

9. Prozeduraren instrukzioa

Prozeduraren instrukzio-organoa Jaiak eta Kirolak Informazio Batzordea izango da.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Balorazio Batzordeak interesdunari eskabidean aurkitutako akatsak zuzentzeko eskatu ahalko dio; horretarako, egutegiko 10 egun izango ditu, jakinarazpena jaso denetik aurrera zenbatzen hasita. Jakinarazpen horren bidez, akats horiek zuzendu ezean, eskabide horri uko egingo zaiola jakinaraziko zaio.

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta, hala badagokio, akatsak zuzentzeko epea amaitu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena bidaliko du; bertan, behintzat, atzera bota diren eskabideak eta horretarako arrazoiak azalduko dira, bai eta onartutako eskabideak, emango den diru-laguntzaren zenbatekoa eta oinarri hauetan aurreikusitako betekizunen betearazpena ere.

Instrukzio-organoak ebazpen-proposamena emango du, eta, horretarako, Balorazio Batzordeak emandako txostena izango du oinarri. Ebazpen-proposamena laguntza emango duen organoaren aurrean emango du, alegia, alkatearen aurrean.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. Interesdunek eskabideak administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsi direla ulertu ahalko dute, baldin eta, epe hori igarotakoan, berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta jakinaraziko da ebazpena.

Berriazko ebazpen-jardueren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoak jarri ahalko dira, ebazpena eman zuen organoaren edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ren aurrean.

10. Diru-laguntzen zenbatekoa eta ordainketa

Onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa kirol instalazioa kokatuta dagoen herriko erroldatuek eta ez erroldatuek ordaindu behar duten gehienezko diferentzia izango da.

Diru-laguntzen zenbatekoa ez da, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua (dena-delako udalerritako enpadronatutakoekin alderatuz duen kostua) baino handiagoa izango, diru-laguntza bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera.

11. Justifikazioa

Laguntzek izaera orokorra dute, lbarrangelu mugakide diren udalerrietako kirol zerbitzu eta instalazioak erabiltzeari lotuak; hori dela eta, gastuak daudela ulertzen da, eta, beraz, laguntza hauen bidez, horiek finantzatzen lagundu nahi da. Onuradunek ez dute egiaztatu beharko emandako zenbatekoak zertan erabili dituzten.



Emandako diru-laguntzak Kirol-instalazioaren zerbitzu horiek erabiltzeagatik izandako gastuen ordainagiria ziurtagiriaren bidez justifikatuko dira; ziurtagiri hori kirol-instalazioaren arduradunak egin behar du.

Diru-laguntza ematen duen organoa izango da horren justifikazio egokia egiaztatze-ko arduraduna.

12. Arau-haustek, zehapenak eta itzulketak

Arau-hausteen eta zigor-ezarpenen gaineko erabakiak diru-laguntzak arautu dituen ordenantzan aurreikusitakoaren arabekoak izango dira.

Itzultzeko prozedura eta arrazoiak diru-laguntzak ematea arautu duen ordenantzan aurreikusitakoak izango dira.

13. Araubide juridikoa

Oinarri hauetan jaso ez denerako, diru-laguntzak ematea arautu duen ordenantzan jasotakoa aplikatuko da.

Ibarrangelun, 2023ko urriaren 2an. — Alkatea, Jesús María Ziluaga Acebo